



Usurbilgo Udala

2024/11/26

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO AZAROAREN 26AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Iratxe Begiristain Otegi eta Ainhoa Arrozpide Landa.

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Ez dira bertaratu: Xabat Beloki Segurola eta Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

1.- 2024KO AZAROAREN 12KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2024ko azaroaren 12ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- GUREAK GARBITASUNA SLU ENPRESAK USURBILGO KIROL INSTALAKUNTZEN
GARBIKETA ZERBITZUA EMATEKO 2018AN JARRITAKO BEHIN BETIKO BERMEA
ITZULTZEA (2024LIBI0012).**

Ikusirik

2018ko abuztuaren 14an Usurbilgo Udala eta Gureak Garbitasuna SLU enpresaren arteko kontratua sinatu zen Usurbilgo Udalaren kirol instalakuntzen garbiketa zerbitzua emateko. Aipatutako enpresak 10.440,70 euroko behin betiko bermea ezarri zuen, 2018-JBAL-8 kodearekin kontabilizatu zena.

2024ko urriaren 11ko 2024/4314 sarrera zenbakidun eskaeran Gureak Garbitasuna SLU enpresak 2018ko lizitazioan jarritako behin betiko bermea itzultzea eskatu zuen.

2024ko urriaren 8an 2018ko kontratua amaitutzat eman zen, kontratu berria 2024ko urriaren 9an indarrean sartu baitzen.

Kirol teknikariak eta kontratazio teknikariak bermea itzultzearen aldeko txostenak egin dituzte.

Hori guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: Gureak Garbitasuna SLU enpresari Usurbilgo Udalaren kirol instalakuntzen garbiketa zerbitzua emateko jarritako 10.440,70 euroko behin betiko bermea (2018-JBAL-8) itzultzea.



Usurbilgo Udala

2024/11/26

Bigarrena: Gureak Garbitasuna SLU enpresari dei egitea enpresaren ordezkaria Udaleko diruzaintzara bertaratu dadin jatorrizko berme agiria erretiratzera.

Hirugarrena: erabakia interesatuari jakinaraztea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarra bukatutzat eman du, goizeko 09:45 direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.